

BEHEKO ALDEKO BILERA (Beheko Tokia 9-11-2011)

1. Barrena-Sautxi bide berria, 42-44 zenbakien atzeko aldeko bidearen eta autopistaren artean dagoen ezponda garbitzeko eskaera egiten da.
2. Asua Errekarako sarbideak. Lanak bukatu ondoren nola geratuko diren galdetzen da. Bizilagunak eta garageen jabeak informatzeko aukera planteatu da, parte har dezaten eta proposamena hobetu dezaten. Galdetu dute ea tuneleko lurra ken daitekeen.
3. Parke inguruan dauden jardinerak txukundu.
4. Merkatu plazaren proiektuaren inguruan galdetu dute.
5. Urkizu 7 zenbakiko autobus geltokian aparkatuta egoten diren ibilgailuengatik kexak.
6. Beheko aldean asteburuetakoa autobus zerbitzuarengatik kexak. Donostiara doazenak ez dira Urkizun geratzen. Ondoren, beste pertsona batek beheko aldetik Untzagara joateko autobus lantzaderak jartzea proposatu du.
7. Barrena kaleko argiak. Indar gutxi dutelako kexatzen dira.
8. Azitaingo herri sarrerako Gabonetako argia oso pobrea da. Hobeagoa jartzea eskatzen da.
9. Iparragirreko igogailurako giltzak eskatzen dira. Beste pertsona batzuk kontrakoa komentatu dute.
10. Beheko aldeko barandak pintatzea.
11. Barrena kalean baldosak solte. Konpontzeko eskatzen da.
12. Barrena 6 zenbakia. 8 baldosa falta dira eta zementuz estaltzea falta da.
13. Artelatzen txukuntzea, zenbaki bakoitien aldekoak.
14. Trenbideko lanak. Hesiak hobetzea eta garajeen guneko pasabidea eragozteia eskatu dute.
15. Saihesbideko heskaiak moztea.
16. Saihesbideko oinezkoen bidera jausten diren euri-urak kanalizatzea.
17. Saihesbideko argiteria hobetzea.
18. Kexak euria egiten duenean saihesbidetik jausten diren luiziengatik
19. Eguzki-Begi: sarbideak hobetzea eskatzen dute, igogailua jartzea edo beste proposamen berri batzuk.
20. abiadura moteltzeko marrak jartzea Urkizu 2-4 zenbakien parean, Azpirineko bihurgune parean.
21. Azitain: bidegurutzetik Txopen etxeraino (Azitain, 1) doan espaloia zabaltzeko aukerarik dagoen galdetu dute. Baranda espaloia amaieraraino margotzeko ere eskatu dute.
22. Barrena kaleko 24-26-28-30 zenbakietako igogailuak. Igogailuen kokapenarengatik kexak jaso dira. Galdetu dute ea zer egin behar den etxeetan pitzadurak agertzen badira, eta erreklamazioa nola aurkeztu azaltzen zaie.
23. Sautxi: kale horretako 5 zenbakirainoko eskailera eta arrapala mekanikoak eskatzen dira.
24. Sautxi plazoletan: 5 urtetik gorako umeentzako jolasak jartzea.
25. Sautxi: birziklapenerako edukiontzi gehiago jartzea, kaleko beste puntu batzuetan.
26. Abiadura moteltzeko marrak jartzea Barrenatik Sautxirako bidean, baita Barrena 38 eta 50 zenbakien parean ere.
27. Kexak, jabeek txakur-kakak jasotzen ez dituztelako.

28. Azitain Poligonoko frontoiaren eta kantzaren ondoan Garbigune bat jartzeko aukeraren inguruan galdetu dute. Aukera gisa zabortegia planteatu dute.
29. Murrategi: sastrakak botatzeko edukiontzia jartzeko eskaera. Horretaz gain inguruko sasiak mozteko eskaera ere egin dute.
30. Eskolaurretik Sautxiko bidera eskailerak egiteko eskaera.
31. Eskolaurreko sarbideetan argiak jartzeko eskaera.
32. Barakaldo 21etik 27ra: lanean diharduten gunea garbitzea, batez ere euria egiten duen egunetan.
33. Urkizuko dorreak: kexak gazteen lokalengatik, zaratak eta zikinkeria.
34. Saihesbideko bide-seinaleak: euria egiten duenean ez dira ikusten.
35. Txonta kaleko LA PLAZOLETA elkartearen hainbat eskaera.
36. Bidegorria eta Txontako tailerren atzeko aldea txukuntzea.
37. Txontan utzita dauden tailerrak botatzea.
38. Txontako espaloiak hobetzea.
39. Txontako argiteria hobetzea.
40. Txonta auzoaren garbiketa hobetzea.
41. Kexak Txontan txakur-kakak direla-eta.
42. Txontan arratoiak akabatzea.
43. Txontako erreka garbitzea.
44. Solac eraikina: lurren kutsaduraren gaineko informazioa eskatu dute.
45. Sarbideak Aranetik: asteburuetan gurutzatzeko arazoak egoten dira.
46. Galizia etorbidea: zeharka (baterian) aparkatzea eskatzen da.
47. Autobus geltoki bakarra kalean.
48. Galizia etorbidean barraketakoen asentamentua.
49. Solac eraikina: Horma bat jausteko moduan dago.
50. Ura ibilbidetik eta estolda-zulo falta Txontan.
51. Umeentzako jolas-lekua egiteko aukera Txontan.
52. Baserri zaharra: txukuntzea eta aisiialdirako gunea egitea.
53. Txontan ez da telebistarik ikusten.
54. Asua Erreka 1-3 zenbakietako pasabidea hobetzea.
55. Asua Erreka 1 zenbakiko garajearen argiteria hobetzea.
56. Iparragirreko igogailua garbitzea.
57. Barrena 42-1. D: atzeko aldeko errekastoak arazoak ematen ditu.
58. Txakurren aisirako gunek eskatzen dira.
59. Txontako 13-15 zenbakien gontzak hobetzea.
60. Txonta 11 zenbakiaren parean: autopista azpiko euri-uren sareta trabatuta.
61. Txonta 9, Solaceko ateko espaloia bukatzea.
62. Barrena 36 al 40, sasiak moztea.
63. Karmen 2 Karmeliten elizarako sarrerako plazatxo konpontzea.
64. Abiadura moteltzeko marrak karmen 4-6 pareko zebrabidean.
65. Karmen 4-6: garajeetan ura sartzen dela esan dute.
66. Karmen 4-6: umeentzako jolasak jartzeko eskatzen dute.
67. Iparragirreko igogailuan bideo-zaintza jartzeko eta bertan irekitze atzeratua jartzeko eskaera.
68. Gisastu-Bide 2: irisgarritasun arazoak, espaloia labaina; eskailerak edo igogailua eskatu dute. Kexak argitasun eskasagatik. Kamioiak AYBE enpresara sartzeko espaloia zapaltzen dute.
69. Kexak edukiontziak zebrabideen inguruan daudelako, beste leku baten jartzeko aukera ikuspenera hobetzeko.
70. Iparragirren 5-11 sasiz garbitzea.